

# Topalekua

112 zk. 2022ko azaroa

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA  
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

GIZARTE KONTSEILUAK, AZAROAREN 10eko OSOKO BILKURAN, LANBIDEK LANERATZEARI BURUZ EGINDAKO AZKEN TXOSTENA AZTERTU ZUEN


## Osasun arlokoak dira batez bestekotik gorako soldata duten UPV/EHUko tituluak (1.891 € hilean)

**Lanbidek Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleen laneratzeari buruz, zehazki, UPV/EHUko 2018ko promozioiko ikasleen laneratzeari buruz, egindako azken inkestaren arabera, lanaldi osoan lanean ari diren graduatuen batez besteko soldata hau da: hilean 1.600 € garbi, 14 ordainsarirekin; lanaldi murriztuaren kasuan, 831 €.**

Jakintza-arloei dagokienez, lanaldi osoan edo partzialean soldatak hauek dira (handienetik txikienera): Osasun Zientziak (1.891 / 964 euro), Teknikoak (1.631 / 903 euro), Gizarte

Zientziak (1.518 / 760), Ekonomia-Lege Zientziak (1.460 / 831 euro), Giza Zientziak (1.443 / 816 euro) eta Zientzia Esperimentalak (1.413 / 879 euro).

### BATEZ BESTEKO SOLDATA LANALDI OSOAN ETA PARTZIALEAN, 14 ORDAINSARIREKIN, UPV/EHU-ko JAKINTZA-ARLOAREN ARABERA



Osasun, Teknika eta Ekonomia eta Legearen jakintza-arloetako tituluak dituzten pertsonen lan-bilaketa aktiboa batez bestekoa baino laburragoa da. Bila hasten direnetik, hiruzpalau hilabete behar dituzte lana lortzeko.

Ikasketak bukatu eta hiru urtera, langabezia-tasa %12,56, enplegu-tasa %80,13 eta jarduera-tasa %91,64 dira. Bilbon, azaroaren 10eko Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuran, datu horiek eta *Euskal Unibertsitate Sistemako Pertsona Egresatuen Laneratzeari buruzko azterlanaren emaitza nagusien* beste datu batzuk, 2021ekoak eta Lanbidek emandakoak, aztertu ziren.

2021eko abenduan, ikasketak bukatu eta hiru urtera, hamar pertsonatik zortzi lanean ari ziren, batek ikasten jarraitzen zuen eta bat langabezian zegoen, aipatutako txostenaren datuen arabera. Egresatutako pertsonen %44ak kontratu egonkorra zuen, eta %56ak aldi baterakoa. Egonkortasun handiena jakintza-arlo Teknikoek eta Ekonomia eta Legea-ren arlokoek zuten.

**Enplegu-tasa handienak**

Lan-merkatuan hiru urte daramatzen UPV/EHUko 2018ko promozioari buruzko azken edizioan, nabarmendu behar da hurrengo tituluek % 100eko enplegu-tasa dutela:

- Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza Organikoa
- Ingeniaritza Elektrikoa
- Medikuntza
- Odontologia

Hurrengo bostak hurbil daude, %95eko enplegu-tasarekin:

- Farmazia
- Erizaintza
- Elikagaien Teknologia
- Biokimika eta Biologia Molekularra
- Marketin

Gutxi gorabehera, teknikaren eta osasunaren jakintza-arloetan titulua duten hamar pertsonetatik bederatzi lanean ari dira, eta ekonomia juridikoko ikasketak bukatutako hamarretik zortzi. Gizarte-arloen (% 18), Giza Zientzien (% 18,8) eta Zientzia Esperimentalen (% 14) tituluek, berriz, emaitza okerrenak lortu dituzte, eta beren langabezia-tasa batez bestekoaren gainetik dago.

**Prestakuntzari lotutako enplegua**

Prestakuntzari lotutako enpleguaren guztizkoa (UPV/EHUko askotariko jakintza-arloetan ikasitako tituluekin bat datozen jarduerak egiten ari diren langileak) %84koa da. Zehazki, gizonen kasuan %85 eta emakumeen kasuan %83koa da. Grafikoan ikus daitekeen bezala, Osasun Zientzien, Teknikoen eta Esperimentalen tituluen ehunekoak nabarmentzen dira. Prestakuntzari lotutako enpleguaren

ehuneko txikiena Ekonomia-Lege Zientziena da; hurbil daude Giza eta Gizarte Zientziak.

**Laneko mugikortasun geografikoa**

Lanbideren azken inkesta horren arabera, UPV/EHUko graduatuen %87 autonomia-erkidegoan bizi eta lanean ari da. Gainerako graduatuei dagokienez, % 10 Estatuko beste leku batzuetan eta % 3 atzerrian bizi eta lanean ari dira.

**Inkesta 30.000 pertsonari, gutxi gorabehera**


Lanbide inkesta hori urtero egiten du 1997tik, EHUko Gizarte Kontseiluaren ekimenez. Ikasleek titulua lortu eta hiru urtera egiten du. Izan ere, denbora hori nahikotzat jotzen du, karrera bat sektore edo lanbide zehatz baterantz bideratzeko. Urtero, Euskal Enplegu Zerbitzuak 30.000 pertsona inguru inkestatzen ditu, Euskadiko ikasleriaren laneratzearen adierazleak ezagutzeko.

**Aldaketak aurrekontuetan eta osagarriak**

Gai-zerrendaren beste puntu batean, azaroaren 10eko Osoko Bilkurak 10.000 eurotik gorako 2 aurrekontu aldatzeko proposamenak onartu zituen. Guztira 53.710,67 euro izango dira, bulego-, irakaskuntza- eta zientzia-materiala erosteko. Horrez gain, 10.000 eurotik beherako 42 proposamen baliozkotzea adostu zuen. Guztira 133.076,91 euro izango dira, ekipamendu zientifikoa, irakaskuntzakoa, informatikoa eta ikus-entzunezkoa erosteko. Aurrekontuetan egindako 44 aldaketa horien guztizko zenbatekoa 186.787,58 eurokoa da.

Azkenik, Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartu zituen aurreko urteko deialdiari dagokion UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarrien esleipenaren aurrean aurreko urteko errekurtsioak.

**PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO ENPLEGUA SEXUAREN ETA UPV/EHU-KO JAKINTZA-ARLOAREN ARABERA**




'STEM' ESPEZIALIZAZIOAN TITULUA DUTENEI DAGOKIENEZ, EUSKADI LEHEN POSTUAN DAGO INGENIARITZEI ESKER

## UPV/EHU emakumeen % handiena duen Espainiako hirugarren unibertsitatea da Informatika, Matematika eta Estatistikan egresatuen artean

**CYD Fundazioak Las Universidades españolas. Una perspectiva Autonómica. 2021 azken txostenean dio, STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematikak) espezializazioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa arlo horietan egresatuen ehuneko handiena duen bigarrena dela (% 28,5), bereziki ingeniarietzi esker; horietan, lehendabizikoa da.**

### UNIBERTSITATEKO EGRESATUAK (GUZTIZKOA: GRADUA, MASTER OFIZIALA ETA DOKTORETZA) 'STEM' ESPEZIALIZAZIOAN ARLO BAKOITZEAN EGRESATUTAKOEN %

Iturria: CYD. Ikasleen estatistika. Unibertsitate Informazioarako Sistema Integratua. Unibertsitateetako Ministerioa.



Euskal Unibertsitate Sistemak Espainiako unibertsitate presentzial guztietako matrikulatu, graduatu, titulu, irakasle, argitalpen eta aurrekontuaren (unibertsitate publikoak) %4,2 - %4,6 dauka, aipatutako CYD Fundazioaren txosten horren arabera.

Autonomia-erkidegoen artean, Euskadik bosgarren BPGd dauka; populazioari dagokionez, zortzigarrena da. Hala ere, nabarmentzen da unibertsitateko ikasketak egiteko adinean dauden ikasle eta tituludun gehien dituen sistema izateagatik. Gainera, bigarrena da gradu- eta master-ikasketak arduraldi osoan egiteko matrikulatutako proportzioari dagokionez. Euskadi nabarmentzen da Ingeniaritza eta Arkitekturako espezialitateetan laugarren erkidegoa eta Gizarte Zientzietan eta Lege Zientzietan seigarrena izateagatik.

### Emakumeen presentzia nabaria

Grafikoan ikus daitekeen bezala, STEM espezializazioari dagokionez, Euskadi arlo horietan egresatuen ehuneko handiena duen bigarren erkidegoa da, bereziki ingeniarietzi esker; horietan, lehendabizikoa da. Gainera, nabarmentzen da Matematika eta Estatistikan egresatuen artean emakumeen ehuneko handiena edukitzeagatik, arlo horietan UPV/EHU Espainiako bosgarrena bada ere. Informatika kontuan hartuz gero, UPV/EHU hirugarrena da, eta arlo horretan ere nabarmentzen da.

CYD Fundazioaren azken txosten horren arabera, Euskadiko graduiko ikasleriaren jardura akademikoa nahiko positiboa da. Horrela, errendimendu-tasari dagokionez (gainditutako kredituen ehuneko matrikulatutakoekiko), bosgarren erkidegoa da. Masterrera etenik gabe igarotako ikasleei dagokionez, Euskadiko graduiko tituludunak bigarrenak dira, ia %30 baitira. Masterra gradu-ikasketak egindako unibertsitate berdinean egiteari dagokionez, zazpigarrenak dira.

Euskadi arlo guztietan dago doitze hoberena duten bost erkidegoen artean, Ingeniaritzan eta Arkitekturan izan ezik.

Euskadi nabarmentzen da emakumezko irakasleen partehartze erlatibo handiena duen bigarren erkidegoa izateagatik. Emakumezko katedradunen eta unibertsitateko emakumezko irakasle titularren presentzia erlatiboari dagokionez, lehendabizikoa bosten artean dago. Gainera, IRIari dagokionez, lanaldi osoan ehuneko handiena duen bosgarrena da.

### Nazioarteko ikasleak erakartzea

Nazioarteko ikasleen ehunekoari dagokionez, gutxigatik bada ere, Euskadi Espainiaren azpitik dago. Hala ere, UPV/EHU dinamikoena izan da, duda gabe, munduko askotariko herrialdeetako ikasleak erakartzeko orduan.

Euskal Autonomia Erkidegoa da Espainian goi-mailako graduatuen ehuneko handiena duena, 25 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriari dagokionez (%53,4). CYD Fundazioaren txostenaren arabera, 2020an "goi-mailako euskal graduatu horiek laugarren jardura-tasa handiena, bigarren enplegu-tasa handiena eta langabezia-tasa txikiena izan zituzten; langabezia-tasa hori ez da %6ra iristen, nahiz eta, koronabirusak eragindako ekonomia-krisiaren ondorioz, 1,3 puntu igo 2019tik".

I+G apartatuan (gastuak eta ikertzaileak) eta goi-mailako irakaskuntzaren sektoreari dagokionez, Euskadi datu osoak eskaintzen dituzten erkidegoen artean dago; biztanleria kontuan hartuta, ikertzaile-ratio handiena duen hirugarrena da, bai eta hirugarrena emakumezko ikertzaileen ehunekoari dagokionez ere.

Unibertsitateko ekoizpen zientifikoari dagokionez, Euskadi hirugarren postuan dago bikaintasuneko argitalpenak lizentziarekin atalean eta autonomia-erkidegoko erakundee-kiko lankidetzan, eta seigarren ehunekorik handiena dauka patenteetan aipatutako enpresekin eta argitalpenekin batera egindako argitalpenetan.

# UPV/EHU da Euskadiko erakunde zientifiko nagusia


**2021ean Scopus eta WoS-en 4.500 argitalpen inguru argitaratu eta gero, Euskal Herriko Unibertsitatea Autonomia Erkidegoko erakunde zientifikoaren buruan dago, Ikerbasque-k editatutako Zientzia Euskadin 2022 Txostenaren arabera.**

Scopus zientzia-aldizkarietako artikuluen laburpenak eta aipamenak biltzen dituen datu-base bibliografikoa da; Web Of Science (WoS) web-orriak, berriz, edozein jakintzarlotako argitalpen zientifiko nagusien erreferentziak biltzen ditu.


Ekoizpen hori zentroen arabera aztertuz gero, argi ikusten da UPV/EHUk Euskadin egindako mota horretako argitalpenen % 56an parte hartzen duela, Scopusen arabera. Urrun jarraitzen diote Deustuko Unibertsitateak, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak, Donostia International Physics Centerrak (DIPC) eta Biocruces-ek. Saillapen horretan, Deustuko Unibertsitatea bigarren postuan eta Mondragon hamaikagarrenean daude, 500 eta 100-200 dokumenturekin, hurrenez hurren.

Zentro eta aliantza horiek sektoreka elkartuz gero, unibertsitatearen sektorea 5.000 argitalpen baino gehiagorekin

## EHU/UPV-k EUSKADIKO PRODUKZIO ZIENTIFIKOAREN % 56an PARTE HARTZEN DU



## AUTONOMIA ERKIDEGOER I+G-an INBERTITZEN DUTEN BPGd-aren EHUNEKOAK



nabarmentzen da, eta Euskadiko ekoizpen zientifikoaren %65ean parte hartzen du, gehien bat UPV/EHUren eraginari esker, aipatutako Ikerbasqueren txostenaren arabera.

I+Gko inbertsio-datuak Autonomia Erkidego bakoitzaren BPGdaren ehunekoari dagokionez aztertuz gero, ikus daiteke 2020an Euskadi berriz ere buruan egon zela, BPGdaren % 2,17ko gastuarekin, Madril, Nafarroa eta Kataluniaren aurretik. Hiru erkidego horiek dira, Euskadirekin batera, Espainiako batez bestekoa (% 1,4) gainditzen duten bakarrak.

Balio absolutuetan, 2020an Euskadin I+Gko gastua inoiz baino handiagoa izan zen: 1.600 milioi euro baino gehiago. Gainera, inbertsioa % 10 baino gehiago handitu zen aurreko urteari dagokionez. 2020ko I+Gko gastuaren banaketari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, Ingeniaritzan eta Teknologian egindako inbertsio handia nabarmentzen da, guztikoaren % 70 baino gehiago baita.

## Giza kapital handia goi-mailako ikasketekin

Beheko grafikoa ikus daitekeen bezala, Euskadi da Espainian goi-mailako ikasketen ehuneko handiena duen autonomia-erkidegoa, 25 urtetik 65 urtera bitarteko biztanleriari dagokionez, guztira %56. Ondoren, hurrenez hurren, lehendabiziko hamar postuetan hauek datoz: Madril, Nafarroa, Asturias, Kantabria, Katalunia, Galizia, Aragoi, Errioxa eta Gaztela eta Leon.

Euskadiko zifra Espainiako batez bestekoaren gaineratik (guxi gorabehera %40) nabarmentzen da. Horrela, aurretik aipatutako %56 horrekin, Euskadik are gehiago finkatu du azken hamarkadan gainerako erkidegoen aurrean izandako nagusitasuna.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN DAGO GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN HERRITARREN EHUNEKO HANDIENA

